

GEOLOKALIZAZIOA

Emandako ZBO kategoria edozein dela ere, baimen guztietan zirkulazio-baldintza gisa agertuko da geolokalizazioaren edo jarraipenaren betebeharra. Betebehar hori betetzeko, egingo den bidaia bakoitzaz abisatzeko jakinarazpena zein bidaia horren hasieraren eta amaieraren jakinarazpena egin behar dira eta bidaian zehar geolokalizazioa bidali behar da.

Bidaiaz abisatzeko jakinarazpena eta bidaia-hasieraren jakinarazpena nahitaez egin behar dira dena delako taldeak abian duen hurrenkeran martxan jarri aurretik, eta jatorri batetik helmuga batera arte egin nahi den bidaia bakoitzean egin behar dira, nahiz eta erabiliko zen ZBOak ibilbide zehatzik ez izan.

Hala ere, jatorri eta helmuga bera duten hainbat bidaia aldi berean egin nahi badira (konboian zirkulatzea), betebehar hori lehen taldeak bete beharko du.

Dena den, jakinarazpen hori ez da inola ere ZBO baliodun baten baimenaren ordezkoa eta ez ditu ZBO horretan jasotako bete beharrekoak aldatzen.

Betebehar horrek ez du salbuesten Ertzaintzarengandik proposatutako bidaia-planaren bisatua lortzetik, bidaia eskolta polizialak lagunduta edo autoeskolta-erregimenean egin behar denean.

Geolokalizazioaren edo jarraipenaren bete beharraren baldintza bete ahal izateko, Trafiko Zuzendaritzak *Bere-track* sistema garatu du, ZBOaren babesean egiten diren bidaiak monitorizatu ahal izateko.

Geolokalizazioa edo jarraipena dela eta, sistema bi aplikazioz osatuta dago:

- **Aurretiko abisurako web-aplikazioa**, bidaiaren aurretiko abisua egiteko. Bidaia egingo duen taldea (abian duen hurrenkeran) osatzen duten ibilgailuak eta bidaiaren data eta hasiera-ordua jakinaraztean datza.

Bidaiaren aurretiko abisua ZBO zehatz baten babesean bidaia bat egin nahi dela erregistratzean datza.

Trafiko Zuzendaritzaren web-orrian aurretiko abisurako web-aplikaziorako lotura egongo da: <https://trafikoa.geozerbitzuak.com/beretrack/abisua>. Aplikazioan sartu ahal izateko, pasahitza eta "baimen-zenbakia" erabili behar dira, eta horiek bidaia babesten duen ZBOan jasota daude.

- **Bidaiaren geolokalizaziorako app mugikorra**, baimendutako zirkulazioa denbora errealean geolokalizatu ahal izateko. Bidaia egiten den bitartean, erabiltzaileak bidaiari hasiera eman beharko dio aplikazio mugikorraren bidez, eta aplikazio hori ibilgailuak denbora errealean duen kokapenari buruzko eguneratzeak bidaltzen ariko da.

Aurretiko abisua emanda, bidaiaren hasierarako eta amaierarako Trafiko Zuzendaritzak eskaintzen duen doako app-a erabiliko da, eta telefono mugikorrerako store-etan egongo da eskuragarri. Aurretiko abisua app mugikorraren bidez ere egin ahal izango da.